



**Euskal
Eredua**
Konponbide berriak

ehbildu

**EAJ eta PSEk Hezkuntza
Lege-proiektuari
aurkeztutako
bosgarren zuzenketaren
harira sortutako
krisia onbideratzeko
proposamena**



Hezkuntza

Zioen azalpena

"Los proyectos lingüísticos se asientan sobre la base del sistema de modelos lingüísticos", horrela ebatzi zuen Iñigo Urkullu lehendakariak urriaren 20an, Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran, EAJ eta PSEren bosgarren zuzenketaren harira sortutako eztabaida.

Baieztapen hori inkongruentzia erabatekoa da:

Inkongruentzia pedagogikoa: "Hizkuntzak Euskal Hezkuntzan" deritzon Hezkuntza Lege-proiektuaren laugarren tituluan euskara ardatz duen esparru eleaniztuna eta kulturartekoa arautzen da. Lege-proiektuak dioenez, hiru hizkuntzen trataera integral eta integratua egingo da, euskara ardatz kontsideratuz. Horrek esan nahi du hiru hizkuntzen irakaskuntza modu bateratuan diseinatu eta inplementatzen dela, printzipio metodologiko eta ikuspegi didaktiko berdinekin, aintzat hartuz, beti ere, hiru hizkuntzetako bat, berezkoa duguna, euskara, gutxiengo egoeran dagoela, egoera minorizatuan, Lege-proiektuak berak aitortzen duenez. Horrela, hizkuntzen trataera integral eta integratuaren nolakotasuna irizpide pedagogikoez zehazten dute, Lege-proiektuan ezarritako helburuak xede eta ikastetxearen baldintza soziolinguistiko eta sozioekonomikoak abiaburu. Lege-proiektu honez gain, berdin arautzen du Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehazten duen 77/2023 dekretuak ere bere zortzigarren artikuluan.

Paradigma berri honek ez du zer ikusirik ikuspegi pedagogikotik 138/1983 dekretuan arautu zen hizkuntza-ereduen sistemarekin. Hizkuntza-ereduen sistema beste paradigma pedagogiko batean oinarritzen da, non bi hizkuntza kontsideratzen diren, ez hiru, eta ez den hizkuntzen trataera integral eta integraturik egiten. Paradigma honetan, A eta D ereduetan, bi hizkuntzetako bat irakas-hizkuntza da (lengua vehicular) eta bestea hizkuntza curricularra; B ereduaren, aldiz, bi hizkuntzak dira irakas-hizkuntza zein hizkuntza curricularrak baina ez da hizkuntzonen trataera integral eta integraturik egiten.

1983. urtetik gaur egunera hezkuntza-jardueran gertatu diren aldaketa soziodemografiko, teknologiko eta metodologikoez paradigma hau baliogabetu egin dute: ez da egungo baldintzetara egokitzen den paradigma pedagogiko bat. Uste dugu nahikoa adostasun dagoela adituen artean horren inguruan. Edozein kasutan, iritzi hau partekatu ala ez, ezin uka daitekeena da bi paradigma pedagogiko ezberdin direla: bata ezin da bestean oinarritu.

Bestalde, hizkuntza-proiektuak hizkuntza-ereduen sisteman oinarritzen direla adieraztea inkongruentzia pedagogikoa da bigarren arrazoi bategatik ere: hizkuntza-proiektuek Lege-proiektuaren laugarren tituluan ezarritako helburuak bete behar dituztelako, eta, hiru hamarkadako esperientziaren ondoren, hizkuntza-ereduen sistemak horrelakorik posible egiten ez duela jakin badakigulako.

Inkongruentzia soziolinguistikoa: Errealitate soziolinguistikoa gainditu egin du hizkuntza-ereduen sistema: gaur egun, ezin bereiz daitezke ikastetxeak, ez eta ikasgelak ere, hiru ereduen arabera, hamarnaka lehen hizkuntza baitaizkagu gure ikasgeletan, hiztun-profil askotarikoak. Dakigunez, aniztasun soziolinguistikoa hau areagotu egingo da datozen urteetan. Ondorioz, gaurko baldintza soziolinguistikoetan, hizkuntza-proiektuak ezin oinarritu daitezke hizkuntza-ereduen sisteman.

Inkongruentzia juridikoa: Bi sistema dira, printzipio juridiko ezberdinetan eusten direnak. Hizkuntza-ereduen sistema bereizlea da, euskara ardatz duen esparru eleaniztuna, berriz, integratua edo konjuntziozkoa. Lehena irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidean oinarritzen da, bigarrena legeak ezarritako hizkuntza-helburuak betetzeko beharrezkoak diren irizpide pedagogikoetan. Halaxe aitortzen du Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoak ere Hezkuntza Lege-proiektuari buruzko txostenean. Bide batez, ondorengo hau gehitzen du: Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziaren arabera, Lege-proiektu honek bere laugarren tituluan arautzen duena konstituzionala da. Beraz, ikuspegi juridikotik ere, hizkuntza-proiektuak hizkuntza-ereduen sisteman oinarritzen direla esatea inkongruentzia da.

EAJ eta PSEk Lege-proiektuaren testuari aurkeztutako bosgarren zuzenketak, erregistratu zenez geroztik, interpretazio ezberdinak izan ditu alderdi sinatzaileetako kideen partetik. Jokin Bildarratz Hezkuntza Sailburuak, urriaren 4ean egindako deklarazioetan, adierazi zuen "hizkuntza-ereduek ez dituztela betetzen, momentu honetan, ikastetxeek dauzkaten beharrak, eta zuzenketa honek jasotzen duela hizkuntza-ereduak garatu eta eguneratzeko aukera, eta hori ezinbestekoa dela, alegia, gure ikastetxeei beste tresna batzuk eskaintzea eta ematea". Segidan, EAJ eta PSEk aurkeztutako 26. zuzenketa aipatu zuen, esanez, "xedapen gehigarri horrek Hezkuntza Sailari bi urte ematen dizkiola eleaniztuna den marko berri bat definitu ahal izateko". Hortik ondoriozta daiteke 26. zuzenketa horrek txertatzen duen xedapen gehigarriaren gauzapekak hizkuntza-ereduak garatu edo eguneratuko dituela.

Bada beste zantzu bat Hezkuntza Sailburuaren adierazpenak berresten dituen: bosgarren zuzenketak ez du gauza bera esaten euskaraz eta gazteleraz. Gazteleraz "modelos lingüísticos vigentes" esaten duen lekuan, euskaraz "unean-unean indarrean dauden hizkuntza-ereduak"

esaten du. Euskarazko bertsioaren itzulpen zehatza "modelos lingüísticos que están vigentes en cada momento" litzateke. Hortik 138/1983 dekretuan arautu ziren A, B eta D ereduak aldatzeko intentzioa ondoriozta daiteke.

Interpretazio honi indarra eman zion Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak urriaren 5ean, esan zuenean hizkuntza-ereduei buruz berba egiten dutenak ikasgeletako errealitatetik kanpo daudela. Aldiz, PSEk behin eta berriz azpimarratu du bosgarren zuzenketa hau hizkuntza-ereduak legean txertatzera datorrela, hauek mantentzeko helburuz.

Ondoren etorri da Iñigo Urkullu lehendakaria, eta, goian aipatutako baieztapenarekin, eztabaida itxi nahi izan du. Bere hitzalditik ondorioztatzen dena da hizkuntza-ereduak mantentzen direla eta, kasuan, etorkizunean, aldatu egin ahalko lirатеkeela. Hau da, lehendakariak, hizkuntza-ereduen sistemaren garapen edo eguneraketaren gaineko ezein eztabaida baztertu du gaur-gaurkoz.

Gaur, ondorengo galderek ez dute erantzun argirik: bosgarren zuzenketa hau onartuko balitz, Hezkuntza Legea indarrean dagoen aldian hizkuntza-ereduak aldatuko dira, bai ala ez? Eta erantzuna baiezkoa bada, zer garapen edo zer eguneraketa aurreikusten da?

Ondorioz, bosgarren zuzenketa honek nahasmen politiko eta juridiko handia eragiten du. Ikuspegi juridikotik, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoak esaten duen bezala, Lege-proiektuak sistema batetik besterako jauzia ematen du. Bada, zuzenketa honek alderantzizko bidea egiten du, erdibidean geldituz, ez-leku batean, ziurgabetasun juridiko handia sortuz. Legearen erreglamenduzko garapena egiten bada laugarren tituluak arautzen duen eran eta hizkuntza-proiektuak garatzen badira curriculuma zehazten duen 77/2023 dekretuak zortzigarren artikuluan esaten duen moduan, Legeari helegiteak jarriko zaizkio 10/1982 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legearen printzipioak aldarrikatuz (irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea), eta Legeak auzitegietan bukatuko du. Azken buruan, Euskadiko Auzitegi Gorena izango da Legearen interpretazio zuzena zein den esango duena. Halakorik ekiditea da, hain zuzen ere, legegilearen betebeharra.

Ikuspegi politikotik, berriz, bosgarren zuzenketaren irismena lehendakariak ebatzitako terminoetan ulertu behar baldin bada, sortzen den egoerak ondorio negatibo sakonak ekarriko ditu hiru mailatan:

Kohesio sozialari eta inklusioari dagokionez: Datu soziodemografikoek erakusten dutenez, A eta B ereduak zonalde urbano jakin batzuetan eta titulartasun pribatuko ikastetxeetan kontzentratzen dira nagusiki: ikastetxe publikoetako A eta B ereduetan (oso ikastetxe gutxi dira) ISEK maila baxuko ikasleak pilatzen dira, kanpoko jatorriko ikasle-portzentaia handiarekin; ikastetxe

pribatuetako A eta B ereduetan, aldiz, ikasleak ISEK maila altukoak dira neurri handian, kanpoko jatorriko ikasle-portzentaia txikiarekin. Beraz, A eta B ereduak eskola-segregazioaren katalizatzaileak dira, eta hala izaten jarraituko dute migrazio-fluxuek gora egingo duten testuinguruan.

Sistemaren gobernantzari dagokionez: Hezkuntza Lege-proiektuak Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa jasotzen du, titulartasun publiko zein pribatuko ikastetxeek eskain dezaketen zerbitzua. Horrela, titulartasun desberdineko ikastetxeak eskubidez eta betebeharez berdintzen dira joko-arau jakin batzuen baitan. Bada, A eta B ereduak titulartasun pribatuko ikastetxeetan kontzentratzen direnez gero, hizkuntza-ereduek oztopo bat ezartzen dute Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikorantz egin beharreko ibilbidean. Adibidez, Lege-proiektuak esaten duen bezala, Zerbitzua eskaintzen duten eragin-gune bereko ikastetxeak Konplexutasun Indize bera izatera iritsi behar badira, hizkuntza-ereduak oztopo nabarmena dira helburu horrek eskatzen dituen politikak inplementatzeko orduan (adibidez, zerrenda bikoitzaren bidez ikasleak eragin-gune bereko ikastetxeen artean banatzea).

Hizkuntzen ikas-irakaskuntzari dagokionez: Agortutako paradigma batetik berri baterako jauziak erabakitasuna eskatzen du. Euskara ardatz duen esparru eleaniztunak badu oinarri teorikoa, ez ordea praktikoa. Esperimentazio-prozesu seguru bat jarri behar da martxan, bultzada politiko eta sozial handia eskatzen duena, aldaketa asko behar baitira hizkuntzen didaktikan, ikastetxeetan jarraitu beharreko estrategia soziolinguistikoetan, landu beharreko dimentsioetan, irakasleen formazioan, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko uztarketan, eta abar. Ez dugu galtzeko denborarik. Nahasmen honek prozesua galgatuko du kasurik onenean.

Kasurik txarrean, ereduak bere horretan mantenduko dira edota, hurrengo Gobernu batek Isabel Celaá buru zuen Hezkuntza Sailak proposaturiko antzeko zerbait saia dezake lege honen erreglamenduzko garapenaren bitartez (% 20 euskaraz, %20 gazteleraz, %20 ingelesez eta %40 hautazko), irizpide pedagogikoen eta helburuen arabera hiru hizkuntzen trataera integratu eta integralaren gainera jarritz EAJ eta PSEren bosgarren zuzenketak aipatzen dituen 10/1982 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legearen printzipioak (irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea).

Irakas-hizkuntza hautatzeko eskubideari dagokionez

Irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea da bosgarren zuzenketa honen alde agertzeko PSEk erabili duen argudio nagusia. Bada, datuek diote D erredua hegemonikoa dela egun sisteman, eta A eta B erreduak zonalde urbano jakin batzuetan eta titulartasun pribatuko ikastetxe jakin batzuetan kontzentratzen direla, zeintzuetan ISEK altuko ikasleek ikasten duten hein handian. Beraz, irakas-hizkuntza hautatzeko eskubiderik ezin daiteke bermatu euskal gizarteak erabaki duelako jada. Euskara ardatz duen irakaskuntzaren aldeko gehiengo sozialak egin du hautua jada, eta ondorioz, ezinezkoa da, materialki, irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea egikaritzea. Beraz, premisa faltsuen gainean ari gara egiten eztabaida hau. Edo, bestela esanda, eztabaida hau artifiziaia da erabat. Hiru herrialdeotan badago kontsentsu soziala bi hizkuntza ofizialetan gaitasun altuenak eskaintzen dituen euskarazko irakaskuntzaren alde, eta, beraz, PSE existitzen ez den gatazka bat birsortu nahian ari da.

Baina, gainera, euskara ardatz duen esparru eleaniztunean hiru hizkuntzak badira irakas-hizkuntza, zein da hautua? Esan nahi baita, hizkuntza-ereduen sisteman hautatzen dena irakas-hizkuntza da (euskara ala gaztelera), baina paradigma berri honetan hirurak dira irakas-hizkuntza. Horixe bera azpimarratzera dator, hain zuzen ere, EAJ eta PSEren hirugarren zuzenketa. Beraz, ez dago zer hautatu. Irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidearen aldarrikapen honek agerian jartzen du, hain zuzen ere, PSEk hizkuntza-ereduen sistema nahi duela, edo, kasuan, Isabel Celaák hasitako eredu eleaniztunari segida ematea, baina ez irizpide pedagogikoen gidatutako eta hizkuntza-helburuak betetzera bideratutako trataera integral eta integratua. Beraz, bai, funtsezko desberdintasun kualitatiboak daude bosgarren zuzenketaren sinatzaileen artean.

Halaber, Lege-proiektuaren 26.1 artikulua dio pertsona orok eskubidea duela, programatutako hezkuntza-eskaintzaren barruan, ikastetxea aukeratzeko; eta 67.1 artikuluan esaten du Euskal Hezkuntza Sistema osatzen duten ikastetxeek, hezkuntza-proiektuaren osagai gisa, hizkuntza-proiektu propio bat egin behar dutela. Beraz, materialki posible den neurrian, ikasleen ezau-garri soziolinguistikoetara hobekien egokitzen den ikas-irakaskuntza hautatzeko eskubidea bermatuta dago jada Lege-proiektuan.

Azkenik, Estrasburgoko Auzitegiaren jurisprudentziak dioenez, hezkuntza-eskubideak ez du irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea barnebiltzen. Eta, hizkuntzen ikas-irakaskuntzari dagokionez, Auzitegi Konstituzionalak ebatzi duena da hezkuntza-sistemak hizkuntza ofizialen ezagutza efektiboa bermatu behar duela, besterik ez. Gogora dezagun Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoak Hezkuntza Lege-proiektuari buruz dioena: integraziozkoa edo konjuntziozkoa den sistema berri hau konstituzionala da.

Esparru eleaniztunak eta kulturartekoak dakarren hizkuntzen ikas-irakaskuntza eta bere garapena argitzeko proposamena

Proposamen honek sortu den nahasmen politikoa argitzeko helburua du eta ondorengo suposizioan oinarritzen da: EAJ eta PSEren bosgarren zuzenketak hizkuntza-ereduen eguneraketari bide eman nahi dio, hizkuntza-ereduak lege honen laugarren tituluarekin koherentzian jartze aldera. Hori horrela dela suposatuz, uste dugu beharrezkoa dela lege-testuan esplizituki adieraztea zein den egin nahi den hizkuntza-ereduen eguneraketa. Horrela, argi geldituko litzateke lege honen zein erreglamenduzko garapen egin nahi den eta sortu den nahasmena onbideratzeko pausu inportantea litzateke.

Hauxe litzateke proposamenaren funtsa: hizkuntza-proiektuen tipologia bat definitzea zeinak A, B eta D ereduak ordezkatuko lituzkeen. Modu horretan, Hezkuntza Legearen zein erreglamenduzko garapen egingo den argituko litzateke euskara ardatz duen esparru eleaniztunari dagokioenez.

Horretarako hiru zuzenketa erdibidetzea proposatzen da, EAJ eta PSEren 26. zuzenketa hartuz proposamenaren oinarri gisa:

Zuzenketa**EH Bilduren 117. zuzenketa,
89 bis artikulua sortzea proposatzen duena**

Jatorrizko testua

Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak ikaslearen eta bere ingurunearen aldagai soziolinguistiko ezberdinak kontuan izanik (gune soziolinguistikoa, ikasleen eta bere familiaren hizkuntzen ezagutza/erabilera, hizkuntzen erabilera ikastetxean...) Hizkuntza Konplexutasun Indizea (HiKI) modu publikoan zehaztu eta arautuko du eta ondorengo funtzioak izango ditu:

- A. Ikastetxeei baliabideak modu bereizian esleitzeko mekanismoak arautuko dira, HiKIaren arabera.
- B. HiKI handiko eta HiKI txikiko zentroen egoera zuzentzeko beharrezkoak diren berrerekatzeko mekanismoak eta trantsizio-aldiak ezarriko dira, HiKIaren arabera neurtuta.
- C. HiKI txikiko ikastetxe edo inguruneetan ikastetxeen gizarte- eta hezkuntza-arloko eta aisialdiko planak eta programen sustapena bultzatuko da. Ikastetxe horietan jarduteko irakasle kualifikatuak, motibatutako eta horien buru diren zuzendaritza-taldeak hornitzeko ezartzen diren mekanismo espezifiko bidez arautzea. Langile horiek behar bezalako pizgarriak jasoko dituzte.

Nolanahi ere, honen garapenerako beharrezkoa izango den dekretuak Euskararen Ikaskuntzarako Institutuak edo berak propio sortutako adituen batzorde baten aholkularitzarekin garatuko da.

**Jatorrizko testutik
aldatzen da****Zioa**

Indize hau tresna baliagarria izango litzateke EAJ eta PSEk aurkeztutako 26. zuzenketa proposatzen duen esparru eleaniztunaren garapena egiteko.

Zuzenketa

**EAJ eta PSEren 26. zuzenketa
xedapen gehigarri bat gehitzea proposatzen duena**

Jatorrizko testua

IV. tituluan ezarritakoari kalterik egin gabe, lege hau indarrean sartu eta gehienez ere bi urteko epean, Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren proposamenez, sistema esparru erkide eleaniztunaren ezaugarriak onartuko ditu, ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektua egiteko erreferentzia gisa. Hizkuntza-proiektu hori euskararen inguruan, eta bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean egituratuta egongo da.

Esparru erkide horrek printzipio hauei erantzun beharko die:

- A. Ikuspegi eleanitza: curriculum osatzen duten hizkuntza guztiak ikasi egin beharko dira, eta ezagutza sortzeko eta transmititzeko tresna izan beharko dute.
 - B. Malgutasuna eta moldagarritasuna: hezkuntza-sistema osoan komunak diren hizkuntza-alderdietatik abiatuta, Esparruak ahalbidetu behar du ikastetxeak egokitu ahal izatea beren autonomia gauzatzean, kontuan hartuta testuinguru soziolinguistikoa, familien erabaki informatuak eta ikastetxean hartutako hezkuntza- eta pedagogia akordioak.
 - C. Inklusibotasuna eta eraginkortasuna: Esparruak ikasleen ezaugarrietara egokitutako hainbat ibilbide garatzea ahalbidetu behar du, bere gaitasunen garapenean arrakasta ez baldintzatzeko eta hizkuntza-helburuak lortzeko estrategia eta metodologia desberdinak erabiltzea ahalbidetzeko.
-

**Jatorrizko testutik
aldatzen da**

IV. tituluan ezarritakoari kalterik egin gabe, lege hau indarrean sartu eta gehienez ere bi urteko epean, Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren proposamenez, sistema esparru erkide eleaniztunaren ezaugarriak onartuko ditu, ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektua egiteko erreferentzia gisa. Hizkuntza-proiektu hori euskararen inguruan, eta bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean egituratuta egongo da. Esparru erkide horrek printzipio hauei erantzun beharko die:

- A. Ikuspegi eleanitza: curriculum osatzen duten hizkuntza guztiak ikasi egin beharko dira, eta ezagutza sortzeko eta transmititzeko tresna izan beharko dute.
- B. Malgutasuna eta moldagarritasuna: hezkuntza-sistema osoan komunak diren hizkuntza-alderdietatik abiatuta, Esparruak ahalbidetu behar du ikastetxeak egokitu ahal izatea beren autonomia gauzatzean, kontuan hartuta testuinguru soziolinguistikoa, familien erabaki informatuak eta ikastetxean hartutako hezkuntza- eta pedagogia akordioak.
- C. Inklusibotasuna eta eraginkortasuna: Esparruak ikasleen ezaugarrietara egokitutako hainbat ibilbide garatzea ahalbidetu behar du, bere gaitasunen garapenean arrakasta ez baldintzatzeko eta hizkuntza-helburuak lortzeko estrategia eta metodologia desberdinak erabiltzea ahalbidetzeko.

Esparru erkide honetan hizkuntza-proiektuen tipologia definituko da. Horretarako, lege honen 89. artikuluan arautzen den Hizkuntza Konplexutasun Indizea (HiKI) oinarri, ikastetxeak konplexutasun soziolinguistikoaren arabera sailkatuko dira, eta konplexutasun-egoera ezberdinetan aplikagarriak izango diren hizkuntza-proiektu tipoak definituko dira. Hizkuntza-proiektu tipo hauek 138/1983 dekretuan arautu ziren hizkuntza-ereduak ordezkatzeko dituzte.

Zioa

Hizkuntza-proiektuen tipologiak aukera emango luke ikastetxeen errealitate soziolinguistiko eta sozioekonomikora egokitutako hizkuntza-proiektuak diseinatzeko. Halaber, aukera emango lioke hezkuntza-administrazioari, kontratu-programen bitartez, konplexutasun soziolinguistikoaren arabera eskaintzeko baliabideak ikastetxeei, gehiago behar duenari gehiago emanaz.

Hizkuntza-konplexutasunaren arabera hizkuntza-proiektuen tipologia honek hizkuntza-ereduak ordezkatzeko dituen gero, ondorioz, esparru erkide eleaniztunaren ezaugarriak zehaztuko lituzkeen erreglamenduzko garapenak A, B eta D hizkuntza-ereduak arautzen dituen 138/1983 dekretua indargabetuko luke.

Zuzenketa

EAJ eta PSEren 3. zuzenketa

Jatorrizko testua

Euskal hezkuntza euskara ardatz duen sistema eleaniztun gisa egituratzen da, eta bi hizkuntza ofizialen bidez eta atzerriko hizkuntza baten bidez, gutxienez, antolatzen da, ikaskuntzak bideratuko dituztenak, gizarte-kohesioa eta herritarrek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna bermatzeko. Lege honek posible egin nahi du ikasle guztiek, familia-jatorria edozein dutela ere, ikasketak amaitzean bi hizkuntza ofizialak maila berean ezagutzea eta, horretaz gain, gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza izatea.

Jatorrizko testutik aldatzen da

Euskal hezkuntza euskara ardatz duen sistema eleaniztun gisa egituratzen da, eta bi hizkuntza ofizialen bidez eta atzerriko hizkuntza baten bidez, gutxienez, antolatzen da, ikaskuntzak bideratuko dituztenak, gizarte-kohesioa eta herritarrek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna bermatzeko. Lege honek posible egin nahi du ikasle guztiek, familia-jatorria edozein dutela ere, ikasketak amaitzean bi hizkuntza ofizialak maila berean ezagutzea eta, horretaz gain, gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza izatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuz, euskara ardatz duen sistema eleaniztunean euskara da ohiko irakas-hizkuntza edo irakas-hizkuntza nagusia. Hizkuntzen trataera irizpide pedagogikoen bakarrik zehazten dute. Halaber, euskara da etorri berriak diren ikasleen harrerarako ohiko hizkuntza.

Zioa

Hiru hizkuntzek bideratzen dituzte ikaskuntzak edo hiru hizkuntzak dira irakas-hizkuntza. Baina hiru hizkuntzen trataera integral eta integratua legeak ezarritako hizkuntza-helburuak erdiestera bideratzen da, eta horretarako aintzat hartzen da hiru hizkuntzetako bat, Gernikako Estatutuaren arabera berezko hizkuntza zaiguna, euskara, gutxiengo egoeran dagoela, egoera minorizatuan, eta ondorioz, sistemaren ardatz bilakatzen da, irakas-hizkuntza nagusizat hartuz.

EAJ eta PSEren bosgarren zuzenketak sortzen duen ziurgabetasun juridikoa ekiditeko proposamena

Dokumentu honen hirugarren atalean egiten den proposamena aintzat hartuko balitz sortu den nahasmen politikoa argituko genuke. Ondoren, EAJ eta PSEren bosgarren zuzenketak sortzen duen ziurgabetasun juridikoa ekidin beharko litzatekeela deritzogu. Horretarako bi aukera ikusten ditugu.

Lehenengo aukera: Hezkuntza Legea eta 10/1982 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea bereiztea, bien arteko loturarik ez egitea. Uste dugu hori izan dela azken hiru urteetan esku artean ibili izan dugun lan-eskema bosgarren zuzenketa hau erregistratu den arte. Zuzenbidean katedraduna den Juanjo Álvarezek halaxe adierazi zuen Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean EAJren gonbidapenez parte hartu zuelarik: Hezkuntza Lege honen garapenean Euskararen Legea ez da arazo bat. Hezkuntza-jarduera hezkuntza lege batek arautu behar du, eta beraz, hezkuntza lege hau indarrean sartuko den unean Euskararen Legearen erreglamenduzko garapena den 138/1983 dekretua indargabetuta geldituko da. Indargabetuta edo desplazatuta, ñabardura juridikoak gora-behera, bateko zein besteko adituek dioskutena da Euskararen Legea ez dela oztopo Hezkuntza Legearen garapenerako.

Hauxe deritzogu dela aukera argiena eta, momentu honetantxe, politikoki kudeatzen errazena. Aukera honek EAJ eta PSEk erregistratu duten bosgarren zuzenketa erretiratzea eskatuko luke.

Bigarren aukera:

Bigarren aukera EAJ eta PSEk aurkeztutako bosgarren zuzenketa Hezkuntza Lege-proiektu honen laugarren tituluarekin lerrokatzera dator. Izan ere, bosgarren zuzenketak, batetik, hizkuntza-ereduak aipatzen ditu, eta, bestetik, 10/1982 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legeak aitortzen dituen “eskubide eta printzipioak” hezkuntza-sisteman berrezartzen ditu. Hain zuzen

ere, Euskararen Legeak irakas-hizkuntza hautatzeko eskubidea aitortzen du. Eskubide hori berriz ere aitortzeak bateragarritasun zaila du ikastetxeetako hizkuntza-proiektuekin. Beraz, proposatzen dena da Euskararen Legea bera aldatzea Hezkuntza Lege-proiektuarekin bateragarri bilakatzeko, eta hizkuntza-proiektuei lehentasuna argiro aitortzeko.

Horrenbestez, zera proposatzen da:

- A. Bosgarren zuzenketaren muina, Hezkuntza Legeko Xedapen Iragankor batera eramatea, bere indarraldia bi ikasturtera mugatuz.
- B. 10/1982 Legeko honako artikulua aldatzea:
 - 5.2.b) artikulua aldatzea. Gaur egungo testua: “b) Derecho a recibir la enseñanza en ambas lenguas oficiales”. Proposatzen den testua: b) Derecho a **recibir enseñanza** en ambas lenguas oficiales a fin de facilitar el logro de los objetivos de conocimiento establecidos en la Ley”.
 - 15. artikulua aldatzea. Gaur egungo testua: “Artículo 15. Se reconoce a todo alumno el derecho de recibir la enseñanza tanto en euskera como en castellano en los diversos niveles educativos. A tal efecto, el Parlamento y el Gobierno adoptarán las medidas oportunas tendentes a la generalización progresiva del bilingüismo en el sistema educativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco”. Proposatzen den testua: Artículo 15. Se reconoce a todo alumno/alumna el derecho de **recibir enseñanza** tanto en euskera como en castellano y **en una lengua extranjera**, en los diversos niveles educativos. A tal efecto, el Parlamento y el Gobierno adoptarán las medidas oportunas tendentes a la generalización progresiva del bilingüismo en el sistema educativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
 - Euskararen Legeko 16. artikulua goitik behera ezabatzea, irakas-hizkuntza hautatzeko eskubideak ez ditzan ikastetxeetako hizkuntza-proiektuak baldintzatu.